

*Piarres Lafitte-ri omenaldia — Homenaje a Pierre Lafitte —
Hommage à Pierre Lafitte. IKER -2. Euskaltzaindia.
Real Academia de la Lengua Vasca. Académie de la Lan-
gue Basque. Bilbo, 1983.*

Euskaltzaindiak, *Iker-2* alea Piarres Lafitte jaunaren ome-
nez plazaratzean, urrats berri bat ematen zuen euskal linguisti-
karen ikerketa alorrean. Euskalarien Nazioarteko Jardunaldie-
kin ireki zuen bide beretik doa *Iker* saileko bigarren liburu
hau ere. Hura izan zen 1980. urteko udaran Euskal Herriko
Unibertsitatean, Leioako *campus*-ean, edonongo euskalari ja-
kitunak bilduz ikerketarako ikuspegi berrien abiapuntu eta
orain datoz ondorenezko uztak.

Esan beharra dago Piarres Lafitte-ren omenezko liburu
hau, Euskaltzaindiak Gipuzkoako Foru Diputazioaren lagun-
tzari esker lortu duela. Bere aurkezpena, Uztaritzen egin zen
1983ko maiatzaren 23an, Lafitte zenari omenaldia eskaini zi-
tzaion egun berean.

Iker-2, edukinez, lehenengoa bezain aberatsa dator. Lehen-
go hura bezala, E. Txillidaren azalez, 23 x 16,5 zentimetro neu-
rriz, 923 orrialdek osatzen dute. Liburu mardula beraz.

Sarreran Lafitte jaunaren bio-bibliografiako zerrendak
daramazki. Gero, lehen atalean, 37. orrialdetik 729.era berro-
geta lau iker lan hizkuntzari buruz: morfologia, lexikografia,
joskera, tipologia eta abar aztertzen dituztenak; bigarren ata-
lean ordea, beste hamalau lan geografía, etnologia, historia
eta artea gaitzat datoz, inoiz Lafitte zenak berak ere erabiliak
zituen gaiak hain zuzen.

J. Allières-en «De la formalisation du système verbal bas-
que»tik hasi eta Zytsar-en «Los numerales del vascuence»ra
arte euskararekin arduratzen direnek badute hor zer hauta.
Kolaboratzaile diren euskalari ospetsuak heurak dira kalita-
tearen adierazgarri. Hor dira, besteak beste, Allières, Altuna,
Barandiaran, Bidart, Goienetxe, Haritschelhar, Lekuona zaha-

rra, P.G. Lertxundi, Metpjin, Mitxelena, Mukarovsky, Orpustan, Peillen, Rebuschi, Suzuko Tamura, Trask, Viers, Villasante, Yrizar, Zytsar, hizkuntzari buruz eskainia den lehen partean; eta Duvert, Garate, Oronoz, Telletxea Idigoras, Ugalde eta beste gainerako gaietan.

Orotara: 33 lan dira euskaraz idatziak, 14 gazteleraz, 10 frantsesez, 2 rusoz, 1 alemanez eta beste bat ingelesez. Anekdotak gisa esan dezagun, japonesa batek idazten duela ingelesez eta ingeles batek euskara hutsean eta ez edonolako lana.

Hor argitaratzen diren zenbait lan urte askotan ikerketak jarraituaz burutuak dira, euskal linguistika alorrean luzarorako oinarriak jarriko dituztenak. Eta, azkenik, esan dezagun, liburu hau argitaratzeaz Euskaltzaindiari zerbait zor badiogu ere, ez gutiago bere lanez hortarako meriturik aski lortu duen gizonari, bere omenez bildua denez.

Fr. LUIS VILLASANTE, OFM.—*Eliza. Kristau fedearen sustraiak*, III. Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País. Obra Cultural de la Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián. Donostia, 1984.

Kristau fedearen sustraieri buruz Fr. Luis Villasantek idatzi duen obra hirukoitzaren azken partea da hau. Lehena *Jainkoa* (1962), bigarrena *Jesukristo* (1969) eta hirugarren hau *Eliza* deritzana.

Hara non oinarritzen den liburu honen edukina: Lehen kapituluan Eliz barnean gaur nabari diren zenbait joera adierazten dira. Bigarrenetik sartzen da Jainkoaren erresuman, gero Apostoluen auziaz, hierarkiazko karguak, San Pedoren